

GREGORIO MUJIKAK, 1907ko UZTAILAREN 28an, ELGOIBARKO EUSKAL JAIETAN IRAKURRITAKO HITZALDIA (bertsio egokitua)

EUSKERAREN ALDE

EUSKALDUNAK:



Gregorio Mujika
1882-1931

Komentarioa:

Ormaiztegin, 1882an jaiotako donostiarra. Ikasketa tekniko zientifikoak izan arren, kazetari, kronikari eta idazle izan zen. Euskal-Esnalea eta Euskalerrriaren Alde aldizkariaren butzatzaille nagusia. Oso euskalzalea zen eta ezaguna izan zen eman zituen hitzaldiengatik eta euskararen aldeko kanpainengatik.

Ez nator, ez daukadan jakintza handi batekin hitzaldi eder bat egiteko asmotan; ez nator; inork esan ez ditzakeen gauza ikusgarriak esanda, zuek harriztera; ez nator ere, Elgoibarko seme ospetsuen albiste batzuk han eta hemen bilduta, zuen begien aurrean jartzera, haien bidea jarrai dezazuen. Ez, ez nator horretara. Nator bakarrik, euskararen alde bi hitz esatera. Badakit ez naizela euskararen alde behar den bezala hitz egiteko dina; ezagutzen ditut nire txikitasuna eta argaltasuna, euskara bezalako gauza baten alde mintzatzeko; baina jaunak, euskaldun jaio nintzen, eta euskaldun jaio nintzelako maite dut bihotz-bihotzetik euskara; eta bihotz-bihotzetik maite badut nire hizkera, nola alferrik galduko dut, maitetasun hori zuen aurrean aitortzeko era? Nik nahi dut, mundu guztiak aditu dezala, euskara gauza guztiak baino gehiago maite dudala esaten dudanean. Ez naiz lotsatzen inoren aurrean esaten: lur honetatik hizkera guztiak ezkutatu behar baldin badute bat bakar-bakarrik geldituta, geldi dadila euskara.

Eta esan nahi dizuet, euskaldun anaiak, zergatik maite dudan euskara hizkuntza guztien aurretik.

Jakintsu askok esaten digute, euskarazkoak izan zirela munduan lehenengo aditu ziren hitzak, eta horregatik euskara gorde behar dela, gauza kondairatsu bat bezala. Nik ez dut horregatik maite. Beste batzuek esaten dute,

gure ibai, herri, baso eta baserrien izenak antzinako eginkizun asko jakiteko, eta gure asaben bizitza argi jartzeko laguntasun asko eskeintzen duelako, maite behar dugula euskara. Nik ez dut horregatik maite.

Badira beste batzuek, hizkera aberatsa, beste guztiak baino hobeto egina, edertasunez ugarituta dagoelako maite dutenak. Nik ez dut horregatik maite.

Nik ez dakit Adan eta Ebaren hizkuntza euskara zen ala ez zen; niri ez zait ajolik, euskerak antzinako gauzak jakiteko laguntzen duen ala ez; berdin izango litzateke niretzat, euskara ederra, aberatsa ta dizdizaria den bezala, zeken, behartsu eta argala balitz. Nik, orain hainbat maiteko nuke. Euskaldun jaio nintzen: euskara maitatzeko ez dut arrazoi gehiagoren beharrik. Ama bat maitatzeko, ez da ederra den ala ez begiratzen; eta ederra baldin bada, ez da ederra delako maitatzen, ama delako maitatzen da.

Hala uste izaten hasi da Euskalerrria, Jaungoikoari eskerrak, hasi gara euskaldunak gure hizkuntza begi gorrototsuekin ez begiratzen; baina hala ere, oraindik gehienek ez dute nahi euskaraz mintzatu, lotsatu egiten dira euskaraz mintzatzen. Lotsatu, bai; ez nuen esan nahi, baina egia baldin bada, zergatik ez esan? Hemen, etxean, aditzen dugu egunero euskararen alde lanean gabiltzanak, gure herriari kalte handi bat beste gauzarik ez diogula egiten, euskera ikasteko erraztasunak ematen ditugunean. Arrotzak bakarrik balira gure arerioak, beste gauzarik egiteko eskubiderik aurkituko ez bagenu, altxatuko genuke goi-goirainoko horma bat Euskalerrri guztia hesituz, baina gure artean ditugu, gurekin bizi dira etsai horiek. Euskalerrrian zerbait diren gizon gehienek artean, erdara besterik ez da aditzen, esaten dutenez euskara arrantzale eta baserritarren hizkera delako, kalte beste gauzarik egiten ez duen hizkera bat delako. A, Jaunak! eta ez zaizue bihotza erdibitzen, ez zaizue anima pusketan hausten, euskarak eginkizun handietarako kalte besterik ez duela egiten esatean? Txurruka, azal zaitez hona, eta esan ezazu zure indar guztiarekin, nolako kalteak egin zizkizun euskara jakiteak, gudari bulardetsu ta kalipudunak bezela odola emateko; Elkano, argitu zaitez hemen, eta esan ezazu nola zu izango zinen lur guztia lehenengo ikusiko zenuena, euskarak galarazi ez balizu; etor zaitez Okendo, euskarak egin zizkizun kalteak esatera; zatoz, Aita Urdaneta, euskerak zenbat eta zenbat eginkizun izugarri galarazi zizkizun zabaltzera; Astarloa, Mendiburu, Arana, Axular, Iztueta... altxa zaitezte zuen hilobietatik eta zatozte, zatozte jaun horiei erantzutera; eta hildakoak bilatzera joan gabe, zu, Kanpion jauna, nafarra izanda euskara ez jakiteaz lotsatu zinelako inork bezain ondo ikasi zenuena, altxa zaitez, eta adieraz iezaiezu jaun horiei, nola euskarak zailtasunik ez dizun ipini, zure izenaren ospearen oihartzunak hain urrutiraino zabaltzeko.

Eta gizonek hain alde batera utzi badute euskera, gehiago oraindik urrindu dute emakumeek; emakumeak bai lotsatzen direla euskaraz hitz egiten.

Emakume aberatsek, kale eta enparantzetan apain eta dotoretuenak azaltzen direnek, uste dute behartsuekin eta eskaleekin berdintzen direla euskaraz hitz egitean, eta behartsuak, emakume aberatsak eta kale ta enparantzetan apain eta dotoretuenak azaltzen direnak hainbat izateagatik, hitz egiten dute erdaraz haiek bezala. Hori gertatzen da emakumeekin: euskararekin berdinak ez izan nahian, erdarak berdintzen ditu. A! Euskaldun damatxoak: ez duzue Kataluniako emakumeen antzik. Han, gazte eta zahar, apain eta soineko zaharrekin doazenak, denak mintzatzen dira beren hizkuntzan, eta kaleetan, biltokietan, alderdi guztietan ez da beren hizkuntza besterik aditzen. Ez ahaztu, entzuten didazuen emakumeak: Kataluniako damak, txikitik ikasi zuten hizkuntzan mintzatzean, ez dira lotsatzen. Eta ez dira lotsatzen ere, lagun bati hizkera horretan eskutitz bat izkribatzean, beti horrela izkribatzen dutelako. Eta zuen artean: zeinek bi herrenkada izkribatu ote ditu euskaraz bere bizi guztian? Erdaraz hitz egitean baino gutxiago zaretela euskaraz mintzatzean usteko duzue, baina egi-egia esaten

dizuet: niretzat, Euskalerriko alaba da emakumeen artean ederrena, baina galtzen du bere edertasunetik erdia eta gehiago, euskara samur eta ez-titsuen hitzak ateratzen uzteko egin ziren ezpain zuri-gorri haiek, erdara arrotza eta zekena esateko irekitzen direnean.

Gizonekin eta emakumeekin zer gertatzen den esan eta gero, umeek zer egiten duten esan beharrik ez dago. Begiak malkoz, bihotza samintasunez, eta arima nahigabez betetzen zaizkit, ikustean nola oraingo umeek ez duten *ama* esaten, nik *ama* esaten dudan hizkeran. Euskalerrian jaiogatik erderaz hitz egiten duzuen umeok, esan iezaiozue zuen amari, ahoan darabilzuen hizkera horretan ez duzuela *ama* bezalako hitz gozo, ez-titsu eta ederrik bilatzen.

Ikusi dugu, nola gizonek, emakumeek eta umeek daukaten ahaztuta euskara gaixoa. Orain dirudi, Euskaldunak utziera horretaz damutuak, hasi direla euskara pitzen, hasi direla esnatzen. Zer atsegintasuna gure izate guztia euskararentzat gordetzen dugunontzat, horrela balitz! Zer alaitasuna sentitzen den bihotzean Euskalerriko biztanle guztiak euskaraz mintzatuko diren egun bat igaroko dela pentsatzean. Eta zergatik ez du igaro behar? Egin dezagun guztiok ahal duguna, hitz egin dezagun euskaraz, eta euskararen alde erdaraz izkribitzen denbora galdu gabe, izkriba dezagun euskaraz. Orduan izango da iritsia, ekarri nahi dugun egun dohaintsua. Badauzkagu euskara zabaltzeko lana egiten duten batzarreak: inguratu zaitezte, euskaldunak. Guk ahal dugun guztia eginagatik, gutxi egin dezakegu zuek gabe: denok batuta indarrak gehituz, behar dugu hautsi gerturatu den hodei beltza, eta estali Ama Euskararen oinak lora garaitondatsuakin.

Zuek, elgoibartarrak, aurtan Euskal Jaiak ikusten dituzuenak, esna zaitezte zuen lotarkiatik eta aurrekoen kondaira berrituz, altxa zaitezte Euskalerrira gordozitzera, baina ez odola isuriz, ez; ez minaren garrasiekin eta guduen burrunbarekin mendiak betez, baizik gaurko armekin, lanaren eta maitetasunaren armekin. Esna zaitezte, Elgoibartarrok, zuen beharra du Euskalerriak euskera gordetzeko.

Euskera zale asko daukazue hemen, zuen aurrean; zatozte horiengana, eta, aurrera! Aurrera, bai; ez lotsatu inoren aurrean euskaraz hitz egiten. Ez dadila esan behin ere, elgoibartarrek ere jarri zutela beren zatia euskararen kontra. Eta orain, beti eta hil arte, eraman ezazue bihotzean jarria, euskaldun guztiak eraman behar dugun agerkari eder hau: Euskalerrira eta euskara, gora beti! Eta inork esaten badizue ezertarako balio ez duten zaharkeriak ekartzea dela guk nahi duguna, erantzun iezaiezue Euskalerrira jarri nahi dugula bide berrian eta jarraiarazi aurrera beti; gure gauza zaharretatik batzuk betiko utzi nahi ditugula, antolatu oraingo beharrak betetzeko beste batzuk, eta bi gauza, hizkuntza eta Lege Zaharrak, ekarri antzina ziran bezala, zahar-zaharrak, lurra bezain zaharrak. Eta esan iezaiozue, alferrik galduak daudela uste badu ere, ez dela egia; aspaldian geldi-geldi egon direlako hautsez beteak daudela, eta etsaiak nahi badu eta nahi ez badu, ekarriko ditugula, eta hautsa kendu eta apain ikusiko dituela oraindik, bere argi distiratzailaren errainuekin Euskalerriko basoen tontorrek sutzen.